

Normalkuntza Plana 2014-2018

JUSTIFIKAZIOA

HIRUBIDE BHI Irunen kokatuta dago. Irun hirian komunikazio hizkuntza nagusia gaztelania da.

Gure ikasleen gehiengoaren ama hizkuntza gaztelera da. Urtero, etorri berriak ditugu gure ikastetxean eta horren ondorioz, bestelako erdal hizkuntzak badaude, hala nola, txinera, ekialdeko herrietako hizkuntzak...

Ikastetxearen kokapen soziolingüistikoa da Normalkuntza Proiektuan sartzeko lehenengo arrazoirik nagusia.

Gure ikastetxean euskararen presentzia eguneroko jarduera akademikoarekin lotuta dago.

Ikasleentzat euskara, ikasteko hizkuntza da eta euskararen erabilera ikasketekin lotzen eta identifikatzen dute. Beraien arteko harreman pertsonaletan ez dute euskara erabiltzen ezta aisiarekin identifikatzen ere.

Hau dela eta, Hizkuntza Normalkuntza Proiektuaren barruan lan egitea beharrezkoa ikusten dugu, hizkuntza mailan ditugun ahuleziak betetzeko.

Hizkuntza Normalkuntza Proiektuan sartzek euskararen erabilera sustatuko du eta irakasle nahiz ikasleen arteko harreman pertsonaletan euskararen erabilera bultzatuko du.

Gure ikastetxea gaur egun D eta B ereduko ikastetxea da, Leka-enea ikastetxetik B eredua jasotzen du eta Belasko-enea ikastetxetik D eta B ereduak.

Aipatu behar da, gaur egun, 2015etik aurrera D ereduko ikastetxearekin batera egin beharko duen ibilbide berri horri erantzuteko, Normalkuntza Proiektuan sartzek ezinbesteko pausua dela.

2012tik 2015era, ikastetxe horrekin elkarrekin lan egiteko eta ditugun hizkuntza proiektuak konpartitzeko, Normalkuntza Proiektuan egotea oso baliagarria izan daitekeela ikusten dugu.

Aldi berean, 2018an gure ikastetxea D ereduko ikastetxea izango da eta irekiko zaigun erronka berri horri erantzuna emateko prest egon beharko dugu.

Orain arte egindakoa:

- 2012ko otsailean Hizkuntza Normalkuntza Batzordea eratu dugu.
- 2012ko otsaila eta martxoa bitartean, datuak bildu ditugu euskara erabileraren diagnosia egiteko.

- 2012ko martxoan zehar, batzordeak diagnosia aztertu egin du, indar-guneak, ahuleziak eta beharrak zehaztuz.
- 2012ko martxoan, batzordeak helburu orokorrak zehaztu ditu eta proiektua idatzi du.
- 2012ko apirilaren 18an klaustroak eta eskola kontseiluak onartu dute. Eman ditugun urrats guztietan zehar, berritzeguneko teknikariaren aholkularitza jaso dugu.
- 2013ko azaroa eta abendua bitartean, datuak bildu ditugu euskara erabileraren diagnosia egiteko.
- 2014ko urtarrilean jasotako datuak 2014-2018 proiektuan sartu ditugu.
- 2014ko otsailean batzordeak diagnosia aztertu egin du, indar-guneak, ahuleziak eta beharrak zehaztuz.
- 2014ko martxoan batzordeak helburu orokorrak zehaztu ditu eta proiektua idatzi du. Eman ditugun urrats guztietan zehar, berritzeguneko teknikariaren aholkularitza jaso dugu.
- 2014ko maiatzeko OOGak onartuko du

EREMU INSTITUZIONALA

Aurreko plangintza-alditik eremu honen gaineko hausnarketa, balorazioa, ondorioak, jarraibideak...

Eremu instituzionalean euskararen erabilera ez da eskasa baina ezta nahikoa ere.

Organo Gorenean kideen %25ak ez daki euskaraz hitz egiten ezta ulertzen ere.

Hau dela eta, Organo Gorenaren bileretan gaztelera ez den beste edozein hizkuntza erabiltzea ezin daiteke espero.

Zuzendaritza taldea osatzen duten irakasleek euskara erabiltzen dute beraien bileretan.

Idazkaritzatik kanpo harremanetan erabiltzen den hizkuntza %80 euskara da. Administrazioako langileak euskaraz hitz egiten ez dakienez hasierako agurrak baino ez ditu esaten.

Irakasleak ez diren langileak, atezainak hain zuzen, euskaldunak dira eta orokorrean euskaraz aritzen dira.

Bestalde, hainbat dokumentu -mota guztietako jakinarazpenak, agiriak, programazioak, memoriak, etab. bi hizkuntzatan idatziak daude baina

oraindik erdaraz dagoen dokumenturen bat falta da.

Eremuaren gaineko BRANKAren datuak

- **Presentzia:** %27.50
- **Erabilera:** %43.54
- **Espero zitekeen erabilera:** > %27.70
- **BRANKAk ateratako datuen interpretazioa:** Oso handia. Ikastetxeko euskararen erabilera maila euskararen presentzia-mailak ahalbide dezakeenda gaingitzen du; hizkuntza bizitasun maila handiko ikastetxea dela adierazten du. Hizkuntza-plana arrakastatsua

Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak.

Eremu instituzionalean euskararen erabilera indartzeko konpromisoa berrituko dugu.

Organo Gorenaren bileretan erabiltzen den hizkuntza bakarra gaztelania da. Hurrengo urteetan euskararen presentzia bermatu beharko dugu.

Zuzendaritza taldeko bileretan euskararen presentzia bermatua dago. Administrazio langileekin berriz, hurrengo urteetan euskararen erabilera areagotu beharko dugu.

Idazkaritzatik kanpo harremanetan euskararen erabilera ezinbestekoa da.

Datozen lau urtetarako honako irizpideak hartuko ditugu kontuan:

- 1- Dokumentu guztiak bi hizkuntzatan ekoiztea eta erdaraz idazten direnak itzultzea. Ikastetxeko dokumentuak, jakinarazpenak, agiriak, programazioak, memoriak, etab. euskaraz egotea.
- 2- Euskararen erabileraren konpromisoa hartzea eta urtero berritzea.
3. Organo Gorenaren bileretan euskararen presentzia %10a bermatzea. Bileren aktak euskaraz jasotzea.
5. Zuzendaritza taldean, bilerak eta aktak euskaraz egitea.
6. Administrazio langileekin komunikatzeko hizkuntza, euskara izatea.

ESKOLAKO KIDEEN HIZKUNTZAZKO PRESTAKUNTZA ETA ERABILERA

Aurreko plangintza-alditik eremu honen gaineko hausnarketa, balorazioa, ondorioak, jarraibideak...

Urteetan atzerritik ikasle ugari datozkigu, gehienak Hego-Amerikatik eta bakan batzuk Ekialdeko herrietatik eta Afrikako iparraldetik. Ikasle hauen kopurua % 43 ingurukoa da.

Duela lau urte arte B eredua izan dugu gure ikastetxean, baina gaur egun D ereduko lau talde ditugu. Alde horretatik esan daiteke ikastetxea euskalduntzen ari dela, nahiz eta oraindik bide luzea dagoen urratzeko, erabilerari dagokionean:

DBH1: 2 B eredukoak + D ereduko bat
DBH2: 2 B eredukoak + D ereduko bat
DBH3: 2 B eredukoak + D ereduko bat
DBH4: 2 B eredukoak + D ereduko bat

Lehen aipatu bezala etorkinen kopurua handia da, ikasle hauek guztiek euskara lantzen dute baina hizkuntzarekiko duten jarrera ez da oso baikorra, hauetako batzuk oraindik ere salbuetsi daudelako. Honek oztopo handia suposatzen du gure ikastetxea euskalduntzeko.

Irakasleei dagokienez, gaur egun euskaraz aritzeko gutxienez beharrezkoa den Hizkuntza Eskakizuna irakasle batek izan ezik beste guztiek badute. Hori dela eta, bilera guztiak (klaustroak, tutore bilerak, eskola kontseiluak, mintegi buruen arteko bilerak, etab... bi hizkuntzatan egiten dira).

Gurasoen eremuan, diagnosian argi ikusten denez %98a erdalduna da. Dena den bidaltzen zaien dokumentazio guztia bi hizkuntzetan izaten da.

Irakasle ez diren langileekin egoera aurten hobetu da, etorri berri zaizkigun bi eskolazainak euskaraz aritzeko gai baitira.

Hau guztia kontuan hartuta argi ikusten da Hirubide Institutuan euskararen presentzia indartu beharra dagoela, poliki-poliki gizarteak horrela eskatuta eta Normalkuntza Proiektuari esker egoera hobetzea lortuko dugu.

Eremuaren gaineko BRANKAren datuak

- **Presentzia:** %25.73
- **Erabilera:** %34.17
- **Espero zitekeen erabilera:** > %25.93
- **BRANKAk ateratako datuen interpretazioa:** Oso handia. Ikastetxeko euskararen erabilera maila euskararen presentzia-mailak ahalbide dezakeenda gaingaitzen du; hizkuntza bizitasun maila handiko ikastetxea dela adierazten du. Hizkuntza-plana arrakastatsua

Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak.

Datozen lau urtetarako honako irizpideak hartuko ditugu kontutan:

1. Ikasleen arteko harremanak euskaraz izatea nagusiki.
2. Ikasleen batzordea (IHNB) antolatzea.
3. Etorkinak euskararen inguruko ekintzetan parte hartzera animatzea.
4. Irakasleen arteko harremanetan, bileretan, euskara erabiltzea.

5. Normalkuntzari buruzko informazioa zabaltzea.
6. Irakasleen batzordea (HNB) eratzea.
7. Langile ez irakasleak normalizazio prozesuan animatzea.
8. Guraso euskaldunekin euskaraz aritzea.

GELAZ KANPOKO JARDUERAK

Aurreko plangintza-alditik eremu honen gaineko hausnarketa, balorazioa, ondorioak, jarraibideak...

Gelaz kanpoko jarduerak izeneko esparruari dagokionez, datozen urteetan euskararen erabilera areagotzeko jarduera gehiago eskaini behar ditugula uste dugu.

Datorren lau urtetarako honako irizpideak hartuko ditugu kontuan:

1. Orain arte euskara eta euskal kulturaren alde lan egiten duten elkarteekin izan ditugun harremanak sendotzea. Zinema eta antzerkia euskaraz egiten ditugun jardueren maiztasuna gehitzea.
2. Jarduera hauek antolatzeko, ikasleen inplikazioa eta parte-hartzea gehitzea.
3. Orain arte gutxi landutako zenbait eragin esparrutan lan egitea, hala nola, jantokian eta jolasaldian.